



Freak Festival Ikasle Kontakizun Lehiaketa

¿Zer da Freak Festival?

Freak Festival **doako aisialdi alternatiboko jardunaldi** bat da, gizarteko gazte sektore guztiari bideratutakoa. Gauekoak programak eta **Udaletxeak** bermatuta, Vitoria-Gasteizko gazte eta kultura elkarteek guttiz antolatu eta gauzatu, Freak Festival-ak hiru eguneko jardunalditan jarduera-sorta zabala biltzen saiatzen da, publiko orokorrari aisialdirako aukera desberdinak eskaini nahian.

Hiru egun hauetan, jardunaldia hirigunetik oso gertu dagoen **Artium Museoa**n gauzatzen da, azken honek eskaintzen diren ekintzetarako lekua uzten duelarik. Jarduera eskaintza gorakor honen barruan erakusketak, tailerrak, hitzaldiak, lehiaketak eta txapelketak, bideo-jokoak, mahai jokoak, kultura japoniarra, kirol alternatiboak y gauza asko gehiago topa daitezke.

2018-ko edizioak jardunaldi hauen laugarrena suposatu zuen, aurreko urtetakoak 2014, 2016 eta 2017an izan zirelarik. Urtez-urte hazkuntza onespren joera nabarmena aurkeztuz, 2018-ko edizioan ia 1500 bisitaldi erregistratu ziren larunbatean zehar.

Gainera, Freak Festival-en izaera kolaboratiboa da. 25 elkarte, enpresa edo gertuko kolektibo baino gehiagok bermatu dute Freak Festival aurreko ediziotan.

Kontakizun Laburren Lehiaketa aurreko ediziotan

Freak Festival-aren hastapenetik, literatura izan da landu eta goretsi nahi izan dugun gaietako bat izan da gure jarduera-sortaren barruan. Horretarako, hainbat ediziotan zehar autore desberdinen bisitaldiak, hitzaldi eta solasaldi irekiak izan ditugu gure publikoa idazketaren mundua probatzera animatzeko asmoz.

Gainera, edizio guztietan, **Kontakizun laburren lehiaketa** bat ospatu dugu, bat-bateko istorio horien garapena sustatu nahian. Lan irabazleak Diario de Noticias de Álava egunkarian argitaratu dira, gure kolaboratzaileetako bat.

2019-ko Kontakizun Laburren Lehiaketa

2019-ko Freak Festival edizio honetan, antolakuntzaren nahietako bat literaturaren sustapenean esfortzuak handitzea da, kontakizun motzeko lehiaketan partaidetza handiagoa bermatuz eta kategoria berriak sartuz, bereziki eskola adinean dagoen publikoaren parte-hartzea nabarmenduz.

2019-ko edizio honetarako, parte-hartze kategoriak hurrengoak dira:

- 1) Ikasle kategoria (15-18 urte) gaztelaniaz
- 2) Ikasle kategoria (15-18 urte) euskeraz
- 3) Heldu kategoria (19 urtetik aurrera) euskeraz edo gaztelaniaz

Lehiakerari buruzko informazioa eta parte-hartze oinarriak

1. Parte-hartzea banakakoa izango da, kontakizun bakoitza egilearen izenarekin identifikatuta egongo delarik.
2. Kontakizun sarrerak 2019-ko otsailaren 15-etik Maiatzaren 1-era onartuko dira.
3. Epaimailaren izendapena sarreren epea bukatu aurretik egingo da, hauek literatura edo argitaratzearen munduko profesionalak direla bermatzen saiatuz.
4. Partehartzaile bakoitzak kategoria guztietan 2 kontakizuneko sarrera egin izango ahal ditu gehienez.
5. Kontakizunen gaiak fantasiako edo zientzia fikziozkoak izango dira.
6. Obra originalak eta aurrezko erakusketarik (blog, sare sozialak...) jasan gabekoak izan behar dira. Ondorioz, edozein motako imitazioak deskalifikazioa suposatuko du.
7. Kontakizunek gutxienezko 1500 eta gehienezko 4000 hitzeko luzera izango dute.
8. Aurkeztutako lanen eskubide guztiak egileei dagozkie, hala ere, parte-hartzaile guztiek haien lanen hedapen eta promoziorako baimena ematen dute.
9. Lanen balorazioan hauen originaltasuna eta edukia kontuan hartuko da, aberastasun lexiko-narratiboa eta definitutako gaiekiko egokitasuna ere aintzat hartuko delarik.
10. Antolakuntzak edozein modutan iraingarri edo mingarri den edozein lan deskalifikatzeko eskubidea erreserbatzen du.



11. Inskripzioan erraztutako izaera pertsonaleko datu guztiak abenduak 13-ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera kudeatuko dira. Lehiaketaren antolaketarako erabiliko dira soilik, hirugarrenei inongo kasutan utzi edo salduko zaizkielarik.

Sariak

1.- Kategoria bakoitzak 100 euroko saria izango du, eskutan emango dena.

2.- Epaimailaren erabakiaren berri Freak Festival-ean zehar emango da, ekitaldiko sari banaketan bertan egingo delarik.